

## Euskeraren aldeko erakunde berria Caracas'en

*Tierra Vasca*, 131. zk., 1967-05: 10.

Caracas'en, euskera aldeko lan asko egin da aspaldi onetan.

Oraintsu Euzkadi'n atera berria degu Caracas'en erdia beintzat egiña izan dan liburu eder eta jakintsu bat: *Birjili'ren idazlanak osorik*. Liburu eder onetako "Unai kantak" eta "Alor kantak" deritzaien zatiak gure idazle aundienetako degun Ibinagabeitia'tar Andima'k emen idatzi ditu; beste zatia, "Enearena", berriz, Aita Onaindia eusko-idazle jakintsuak Euzkadi'n egiña izan da. Bestalde, Amezaga'tar Bingen ixtorigille ta idazle trebeak ere Bolibar'en "Jamaika'ko karta" euskerara itzuli ta agertu berria degu. Etxeberria'tar Toribio'k emen, Caracas'en, egin da lan aundi ta eder bat, Eibar'ko euskeraren iztegi bat, argitaratu berria dute Euskaltzaindi'ko *Euskera* aldizkarian. Nere *Sorgiñaren urrea*, umeentzako kontuak, atera berria da.

Oietzaz gañera ba dira Caracas'en idatzitako beste euskerazko liburu batzuek argitaratu gabe daudenak. Or dauka Egaña'tar Gotzon, euskeltzale langillea ta bizi-bidez maixua dana, umeentzako liburu jakingarri bat: *Muxugorri*, irarkolaren zai; ta neronek ere ba daukat panpiñ edo titere lanetarako egindako bat: *Panpiñak*.

Ez gaude, ba, Caracas'en, danak lo.

Izan ere, beti izan da Amerika osoa euskera eragintzalea. Argentina beti izan degu lan onetan buru, ta ango euskal idazle sutsu ta langille asko aitatu genezake. Guatemala ta Mexico ta Uruguay eta beste erri batzuetan ere bai.

Nun dagoan eragiña?

Etxetik kanpora ateratzen dan euskaldunak urrutitik, bere izkuntzaren berezko jan-bidea galtzen duanean, Euskal-Erria usten duanean, euskeraganako gose berezia sortzen dala dirudi, ta, ala, gure erri ta izkuntz miña nolabait sendatzeko gure izkuntz-lantze oneri ekiten diogu, noski.

Ta ara, oraintxe, egun oietan, ba degu Venezuela'n bizi geran euskaldunok beste poz bultzagai bat:

Eusko Alderdi Jeltzalea'ren eragiñez, euskeraren aldeko erakunde bat antolatu da: *Euskal Jakintza'ren Lagunak*, eta bere lendakari bezela Amezaga'tar Bingen izentatua izan da.

*Euskal Jakintza'ren Lagunak* Alderdia'k eraginda sortua izan ba da ere, Alderdia'k babestua jaiio bada ere, ez du bere lanean Alderdi (alderdi bezela) kutsurik izango. Egiten dan lana Eusko Kultura'ren Alde'arekin batera egingo du, ta euskaldun guzrien lana izango da, ta euskaldun guztientzat eratutako lana. Ara ba, emen, leialtasun aundi bat.

Bañan ba du erakunde onek beste alde leial bat ere.

Euskal Jakintza'ko Lagunak bere dirua ba du: euskaldun leial bat edo geiagok, ez-ezagunak, ixilka, euskeraren aldeko lanerako jarri dute dirua.

Ba da zerbait!

Ez genduan urtetan orrelako laguntzarik ikusi!  
Eskerrak, beraz, euskeraren berpizte lan onetarako eman duten euskel saiñeko  
gizonei; ta Caracas'eko Eusko Alderdi Jeltzalea'ri.  
Urrungo batean aztertuko ditugu leialtasun onen ondorenak.